



**EBAZPENA, 2019KO OTSAILAREN 28KOA, HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ, ARTE DRAMATIKOKO GOI-MAILAKO IKASKETAK EGITEKO SARBIDE-PROBARAKO DEIA EGITEN DA, 2019. URTEKO PROBA ANTOLATU, GARATU ETA EBALUATZEKO BEHARREZKO ARGIBIDEAK EMATEN DIRA ETA 2019/2020 IKASTURTERAKO IKASLEAK ONARTZEKO PROZEDURA EZARTZEN DA.**

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak 54., 55., 56. eta 57. artikuluetan ezartzen duenez, goi-mailako arte-ikasketak egiteko, beharrezkoa da batxilergo-titulua izatea edo hogeita bost urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba egitea, eta dagokion sarbide-proba espezifikoa gainditzea. Hori bera ezartzen du 12. artikuluan urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretuak, maiatzaren 3ko Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoan arautzen diren goi-mailako arte-irakaskuntzen antolamendua ezartzen duenak.

Bestalde, lege organiko horrek 69.5 artikuluan ezartzen duenez, hemezortzi urtetik gorakoek, batxilergo-titulua dutela edo hogeita bost urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu dutela egiztatzen ez badute ere, goi-mailako arte-ikasketak egin ahalko dituzte; horretarako, proba bat gainditu beharko dute. Proba hori hezkuntza-administrazioek arautu eta antolatuko dute, eta haren bidez egiaztatuko da izangaia behar bezain heldua dela, Batxilergoko helburuei dagokienez eta dagokion ikasketak probetxuz egiteko ezagutzari, abileziei eta gaitasunei dagokienez. Izangaiek, horretaz gainera, ikasketa horietako bakoitzerako sarbide-proba espezifikoa gainditu beharko dute.

Urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretuak, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan araututako goi-mailako irakaskuntzak antolatu zituenak, 11. artikuluan ezarritakoari jarraituz, maiatzaren 14ko 630/2010 Errege Dekretua argitaratu zen, 2/2006 Lege Organikoan ezarritako goi-mailako arte-irakaskuntzen oinarritzko edukia arautu zuena.

Errege Dekretu horren 5. artikuluan ezartzen denez, ikasketa horiek egiteko sarbide-proba espezifikokoaren helburua da ebaluatzea ea izangaiek baduten ikasketak probetxuz egiteko behar adina heldutasun, ezagutza eta gaitasun. Hala, hezkuntza-administrazioak arduratuko dira sarbide-probaren deialdia egiteaz, bai eta sarbide-proba antolatzeaz, garatzeaz eta ebaluatzeaz ere. Horregatik, hauxe

#### **EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa.- Xedea eta aplikazio-eremua.**

Ebazpen honen xedea da arte dramatikoko goi-mailako ikasketak egiteko sarbide-proba espezifikokoaren deialdia egitea eta arautzea, bai eta



irizpideak ezartzea ere Euskal Autonomia Erkidegoan ikasleak onartzeko 2019-2020 ikasturterako.

**Bigarrena.- Probaren helburua eta ondorioak.**

1. Goi-mailako ikasketa horietara sartzeko probaren helburua da ebaluatzea ea izangaiek baduten ikasketa horiek probetxuz egiteko behar adina heldutasun, ezagutza eta gaitasun.

2. Proba gainditzeak aukera emango du ikasketa horiek ematen dituen estatuko edozein zentrotan sartzeko, betiere zentro horietan plaza libreak baldin badaude.

3. Probak dagokion ikasturterako bakarrik balio du.

**Hirugarrena.- Proba egiteko ikasleek bete beharreko betekizunak.**

Baldintza hauetakoren bat betetzen duten ikasleek egin ahalko dute arte dramatiko goi-mailako arte-ikasketak egiteko sarbide-proba espezifikoa:

1.- Batxilergo-titulua izatea.

2.- Hogeita bost urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.

3.- Goi-mailako arte-ikasketetan sartzeko ezarritako betekizun akademikoen ordezkotako heldutasun-proba gainditzea edo lanbide-heziketako goi-mailako prestakuntza-zikloak egiteko sarbide-probaren zati amankomuna gainditzea.

**Laugarrena.- 2019an proba egiteko izena ematea: prezio publikoak, ikastegia eta epeak.**

1. Izena emateko epea: apirilaren 29tik maiatzaren 24ra.

2. Izena emateko tokia. Ikastetxea: Dantzerti.Antzerki eta Dantza Goi Mailako Eskola.

3. 2016eko maiatzaren 16ko Aginduak, Hezkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak ezartzen dituen Agindua hirugarrenez aldatzekoa xedatutakoaren arabera, deialdi honetan parte hartzen duten izangaiek 28,02 € ordaindu behar dituzte sarbide-probaren prezio publiko gisa.

4. Ikasketa horiek egin nahi dituzten ikasle guztiek bete beharko dute inskripzio-eskabidea, I. eranskineko ereduaren arabera.

5. Inskripzio-eskabideak aurkezteko epea amaitu eta handik bost egun baliiodunera, Dantzerti.Antzerki eta Dantza Goi Mailako Eskolaren webgunean argitaratuko da probarako onartu diren pertsona inskribatuen zerrenda. Hala badagokio, kanpo gelditu direnen zerrenda



ere argitaratuko da; kanpo zergatik gelditu diren adieraziko da, eta 48 orduko epea irekiko da akatsak zuzentzeko.

### Bosgarrena.- Sarbide-probaren egitura.

Interpretazioaren espezialitateko arte dramatikoko goi-mailako ikasketak egiteko sarbide-proba espezifikoak bi zati izango ditu:

#### 1. zatia:

##### A Ariketa:

Testu dramatiko baten azterkerketa izango da

Aurretiaz jakinaraziko dira repertorio baten obra dramatiko batzuk eta probaren momentuan hauetariko bat aztertu egin beharko da.

Izangaiaren heldutasuna eta ezagutza ebaluatuko da, eta, horretarako, kontuan hartuko da ea kontzeptuak ulertzen dituen, zer-nolako hizkuntza erabiltzen duen, loturak egiteko eta laburbiltzeko gaitasuna duen eta erantzunak egokiak diren.

Ariketa hori egiteko, izangaiek 60 min izango dituzte gehienez.

Aurkezten direnek idatzizko proba euskaraz edo gazteleraz egin ahal izango dute, eta beraien aukera eskabide orrian adieraziko dute.

##### B Ariketa:

Sormen-idazketaren ariketa: Doinu gabeko eszenifikazioa jarriko da eta aurkezten diren hautagaiak aipaturiko eszenaren elkarrizketak sortarazi egin beharko du.

Ariketa hori egiteko, izangaiek 15 min izango dituzte gehienez.

Aurkezten direnek idatzizko proba euskaraz edo gazteleraz egin ahal izango dute, eta beraien aukera eskabide orrian adieraziko dute.

#### 2. zatia:

Hiru ariketa praktiko egingo dituzte (A, B, C), eta, horien bidez, gaitasun artistikoak ebaluatuko dira, kontuan hartuta izangaien gorputz-ahots- eta interpretazio-gaitasunak.

##### A ariketa:

Izangaiek, denek batera edo taldetan banatuta, mugimendu eta gorputzeko ariketa praktiko bat egingo dute, epaimahaikide baten zuzendaritzapean edo epaimahaikideek izendatutako aditu baten zuzendaritzapean. Hau



guztia ebaluatuko da: gorputz-adierazkortasuna eta -plastika, espazioan mugitzea eta denbora, energia eta kontzentrazioa.

Ariketa hori egiteko, izangaiek 90 min izango dute gehienez.

### B ariketa:

Izangai bakoitzak hurrengo hiru probak egin beharko ditu:

B.1 Izangai bakoitzak abesti melodiko bat aurkeztuko du, berak nahi duena, EAEko edo Europar Batasuneko hizkuntza ofizialetako edozeinetan; a capella abestuta.

Epaimahaiak alderdi hauek ebaluatuko ditu: intonazioa, erritmoa, afinazioa eta ahoskera.

B.2. Izangaiek poema dramatizatu bat errezitatu; poema hori izangaiek ekarriko du. Epaimahaiak alderdi hauek baloratuko ditu: erritmoa, ahoskera, adierazpena eta entonazioa.

B.3. Epaimahaiakideek momentuan emandako testu baten ozeneko irakurketa.

Epaimahaiak egokitzen jotzen dituen ariketak proposatuko ditu, izangaia hobeto ebaluatze aldera. Halaber, epaimahaiak ariketetako bakoitza eten edo amaitutzat jo ahalko du, egoki deritzenean. Horretaz gainera, epaimahaiak egokitzen jotzen dituen galderak egingo ditu, izangaia hobeto ebaluatze aldera.

### C ariketa:

Izangai bakoitzak antzerki-bakarrizketa bat interpretatu du, epaimahaiak aurrez ezarritakoen artean. Testua Dantzerti, Antzerki eta Dantza Goi mailako zentruaren web gunean argitaratuko da, izena emateko epean.

Epaimahaiak proposaturiko testuak 2 euskeraz eta bi erderaz, izango direnak. Hauetariko bi emakunekoak izango dira eta bi gizonezkoak. Testuak argitaratuak agertuko dira izena emateko epean, Dantzerti, Antzerki eta Dantza Goi mailako zentruaren web gunean.

Alderdi hauek ebaluatuko dira: jarrera eta presentzia eszenikoa, kontzentrazioa eta gorputzaren, ahotsaren eta testuaren arteko lotura.

Epaimahaiak agian galderak egingo dizkio izangaiari, egindako lanari eta/edo bere itxaropenei buruz.

B eta C ariketak egiteko, izangaiek 19 minutu izango dituzte gehienez. Izangaiek erabakiko du zer ordenatan egin ariketak. Izangaiek



ez badu aurkezten edo egiten probako ariketetako bat, ezingo du hurrengoetan parte hartu, eta ez zaizkio zuzenduko egin dituen probak.

II. eranskinean agertzen da probaren egitura, bai eta zatietako bakoitzaren puntuazioa ere.

#### **Seigarrena.- Sarbide-proba kalifikatzea.**

1. Sarbide-proba espezifikoa gainditzeko, ezinbestekoa da bi zatiak gainditzea. Lehenengo zatian 10 puntu edo gehiago lortu dituzten izangaien behin betiko puntuazioa jasoko da, eta bigarren zatian 40 puntu edo gehiago lortu dituzten izangaiena.

2. Azken nota zenbakien bidez adieraziko da; horretarako, batetik ehunera arteko eskala erabiliko da, eta dezimalak hamarren hurbilenera biribilduko dira, eta, distantzia berera egonez gero, goikora.

#### **Zazpigarrena.- Sarbide-proba espezifikokoaren epaimahaia.**

1. Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako arduradunak izendatuko du proba ebaluatzeko epaimahaia, eta epaimahaiburua eta hiru epaimahaikide izango ditu gutxienez.

2. Epaimahaiak aukera du egokitzat jotzen dituen aholkularien laguntza eskatzeko.

3. Honako hauek dira epaimahaiaren egitekoak:

a) Euskal Autonomia Erkidego osorako bakarrak izango diren probak egiteko eta gauzatzeko prozesua antolatzea.

b) Ebaluazio-saioak antolatzea eta aktak betetzea.

c) Aurkezten diren erreklamazioak ebaztea.

d) Sarbide-probak behar bezala egiten direla eta indarrean den legeria betetzen dela zaintzea.

#### **Zortzigarrena.- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak.**

1. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek proba egiteko denbora eta bitarteko materialak egokitzeko eska dezakete, gainerako izangaien aukera berak izan ditzaten.

2. Pertsona horiek dagokion egiaztagiraren bidez egiaztatu beharko dute beren kondizioa.

#### **Bederatzigarrena.- Proba egitea.**



1. Arte dramatikoko goi-mailako arte-ikasketak egiteko sarbide-proba espezifikoa ekainaren 17tik 21era bitartean egingo dira. Data zehatza Dantzerti, Antzerki eta Dantza Goi mailako zentruaren web gunean argitaratuko da, proba-eguna baino hamar egun lehenago, gutxienez.

2. Probak Dantzerti, Antzerki eta Dantza Goi mailako zentruan egingo dira.

3. Epaimahaiak horrela erabakiko balu, argibide gehiago eman ahal izango ditu aurreko puntuaren inguruan Dantzertiko Iragarki taulan edo Dantzerti, Antzerki eta Dantza Goi mailako zentruaren web gunean.

4. Proba egiteko, izangaiek, beraien NANA edo dokumentu ofiziala eraman beharko dute. Beraiek eraman beharko dituzte proba egiteko behar duten materiala.

**Hamargarrena.- Probaren emaitzak argitara ematea eta erreklamazioak egitea.**

1. Behin-behineko notak Dantzerti, Antzerki eta Dantza Goi mailako zentruaren webgunean argitaratuko dira, proba egin eta handik bi egun baliadunera.

2. Behin-behineko emaitzak argitaratu eta bi egun baliadunen buruan egin dezake ikasleak probako notaren erreklamazioa. Erreklamazioa epaimahaiburuari egin beharko dio, eta behin betiko notak onartzearekin batera ebatziko da.

3. Behin-behineko notak argitaratu eta gehienez astebeteren buruan argitaratuko dira behin betiko notak.

4. Behin betiko notaren kontra, gorako errekurtsua jarri ahal izango zaio Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako arduradunari, nota argitaratu eta hilabeteko epean.

**Hamaikagarrena.- Probaren ziurtagiria.**

Proba gainditu duen ikasleak ziurtagiria emateko eskatu ahal izango du proba egin duen ikastetxean, III. eranskineko ereduari jarraituz. Proba guztiz gainditu ez duten izangaiei ez zaie ziurtagiririk emango, ez eta ziurtagiri partzialik eta ariketen noten ziurtagiririk ere.

**Hamabigarrena.- Dokumentazioa gordetzea.**

Probak egiteko sortzen den dokumentazioa proba egiten den ikastetxean gordeko da, proba egin eta hiru hilera arte.

**Hamahirugarrena.- Deituko diren plazen kopurua eta plazak esleitzeko modua.**



1. 2019/2020 deialdian, eta martxoaren 15eko 303/2010 Errege Dekretuaren 26. artikuluan ezarritako ratioen arabera, administrazio akademikoak interpretazioaren espezialitateko 15 plaza betetzeko sarbide-proben deialdia egingo du.
2. Ikasleak onartzeko, ezinbestekoa da sarbide-proba espezifikoak gainditzea.
3. Proban lortutako noten arabera esleituko dira plazak, beheranzko hurrenkeran.
4. Berdinketa gertatuz gero, lehentasuna izango du sarbide-probako bigarren zatian nota handiena lortzen duen izangaiak. Hala eta guztiz ere berdinketa gertatuz gero, lehentasuna izango du sarbide-probarako egiaztatutako betekizun akademikoan nota onena egiaztatzen duenak, lehentasun honen arabera: Batxilergoko batez besteko nota, hogeita bost urtetik gorakoentzako sarbide-probako nota eta hemezortzi urtetik gorakoentzako heldutasun-probako nota. Horren harira, "gai" kalifikazioa 5 batekin konputatuko da.
5. Matrikulatzeko epea amaitzean plaza libreak geldituz gero, lehentasuna izango dute ikastetxe horretan probak gainditu dituzten eskatzaileek, proba espezifikoan lortutako ordenaren arabera.
6. Amaitzeko, plaza libreak geldituz gero, beste ikastetxe batean espezialitate bererako sarbide-proba espezifikoak gainditu duten beste eskatzaile batzuei esleitu ahalko zaizkie.
7. Pertsona Desgaituen Eskubideei eta Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoa betez, % 33ko edo gehiagoko ezgaitasun maila duten ikasleentzat tokien % 3 erreserbatuko dute, betiere, dagozkion sartzeko eskakizunak betetzen badituzte. Horretarako, ezgaitasuna duten ikasleek zer ezgaitasun-maila aitortuta duten adierazten duen ziurtagiria erakutsi behar dute, eskumena duen organoak egina.
8. Uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretuak, goi-mailako eta errendimendu handiko kirolariei buruzkoak, 9.4 artikuluan ezarritakoa betetze aldera, plaza libre berrien % 3 gordeko zaie goi-mailako edo errendimendu handiko kirolariak direla egiaztatzen duten kirolariei; kirolari horiek dagozkion betekizun akademikoak bete beharko dituzte, eta sarbide-proba gainditu. Ikastetxe bakoitzak eskaintzen dituen guztizko plaza berrien gainean kalkulatu da plaza-erreserba hori. Sarbide-proba espezifikoak espezialitateen, ibilbideen, instrumentuen edo estiloen arabera egituratzen duten ikasketei dagozkienez, bermatu egin beharko da erreserba horren onuradunak, zer espezialitate, ibilbide, instrumentu edo estilotako sarbide-proba espezifikoak gainditzuten duten, espezialitate, ibilbide, instrumentu edo estilo horretan sartu ahalko direla.



9. Zer espezialitatetako sarbide-proba gainditzen duten, eskatzaileei espezialitate horretako plazak soilik esleitu ahalko zaizkie, eta ez beste espezialitate bateko plazak.

10. Matrikula, Dantzerti, Antzerki eta Dantza Goi mailako zentruan egingo da uztaileko lehenengo hamabostaldian.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko otsailaren 28an.

Lucía Torrealday Berrueco  
HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA





## I. ERANSKINA

## ANEXO I

**ARTE DRAMATIKO ETA DANTZA GOI-MAILAKO IKASKETAK EGITEKO SARBIDE-  
PROBAN IZENA EMATEKO ESKABIDEA. 2019-20 IKASTURTEA**
**SOLICITUD DE INSCRIPCIÓN A LA PRUEBA DE ACCESO A LAS ENSEÑANZAS  
ARTÍSTICAS SUPERIORES DE ARTE DRAMÁTICO Y DANZA. CURSO 2019-20**

AUKERATZEN DEN ESPEZIALITATEA / ESPECIALIDAD ELEGIDA	
Arte dramatikoa Goi mailako ikasketak / Enseñanzas Superiores de Arte Dramático	
Dantza Goi mailako ikasketak / Enseñanzas Superiores de Danza	

(Dagokiona aukeratu / Señalar la opción elegida)

IKASLEAREN DATUAK / DATOS DEL ALUMNO O ALUMNA	
Abizenak / Apellidos: _____	Izena / Nombre: _____
Jaioteguna / Fecha de nacimiento: _____	NAN / DNI: _____
Helbidea / Dirección: _____	
Herria / Población: _____	PK / CP: _____ Lurraldea / Territorio: _____
Sakeleko telefonoa / Teléfono móvil: _____	Emaila / Email: _____
Proba zein hizkuntzatan egingo den / Idioma de realización de la prueba: <input type="checkbox"/> Euskaraz <input type="checkbox"/> En castellano	

AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA / DOCUMENTACIÓN PRESENTADA	
a. Batxilergo titulua / Título de Bachiller	Batxilergo Artistikoa (Arte Eszenikoak, Musika eta Dantza) / Bachillerato Artístico (Artes Escénicas, Música y Danza) Beste Batxilergo batzuk / Otros Bachilleratos
b. Tasa ordaindu izaneko jatorrizko frogagiria	Acreditación del abono de tasa (justificante original)
c. Ondorio akademikoetarako batxilergo-tituluaren baliokidea den beste bat (adierazi zein)	Título equivalente al de Bachillerato a efectos académicos (Indica cuál)
d. 25 urtetik gorakoentzako unibertsitatara sartzeko proba	Prueba de acceso a la Universidad mayores de 25 años.
e. Heldutasun-proba edo LHko zati amankomuna	Prueba de madurez o parte común de FP
f. Dantza ikasketa profesional titulua	Título de enseñanzas profesionales de danza
g. Duela gutxi argazki bat (idatzi izena eta bi abizenak atzealdean)	Fotografía reciente (con nombre y dos apellidos al dorso)

Tokia eta data / Lugar y fecha: \_\_\_\_\_

Sinadura / Firma

Datu pertsonalak babesteari buruzko Lege Organikoan ezarritakoa betetze aldera, eskabide-orka betetzeak esan nahi du interesdunak baimena ematen duela orrian idatzitako datuak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko fitxategi informatizalutan gordetzeko. Datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko, ezereztzeko eta aurka egiteko eskubideak, Lege horretan aurreikusituen direnak, Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzan balia daltzeko.

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal, la cumplimentación de la solicitud implica la autorización de la persona interesada para la incorporación de los datos consignados en ella a los ficheros informatizados del Departamento de Educación del Gobierno Vasco. Los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la mencionada Ley, se pueden ejercitar ante la Dirección de Innovación Educativa del citado Departamento de Educación.



II. ERANSKINA  
 PROBAREN EGITURA

	ARIKETA	OHARRAK	EGITEKO DENBORA	PROBAREN GUZTIZKOA REKIKO BALIOA	
1. ZATIA	1	Testu baten azterketa	Epaimahaiak ekarria	60 minutu gehienez	10 puntu
	2	Sormen idazketa		15 minutu gehienez	10 puntu
A. ARIKETA					
2. ZATIA	A	Mugimendu eta gorputzeko talde-praktika bat egitea	Epaimahaiak izendatutako aditu batek gidatua	90minutu gehienez	25puntu
	B ARIKETA.				
	B1	Abesti melodiko bat a capella interpretatzea	Izangaiak ekarria.	3 minutu gehienez	10 puntu
	B2	Poema dramatiko bat errezitatzea	Izangaiak ekarria.	3 minutu gehienez	10 puntu
	B3	Epaimahaiak momentuan emandako testua irakurri	Epaimahaiak ekarria	3 minutu gehienez	10 puntu
C. ARIKETA.					
C	Antzerki-bakarrizketa bat interpretatzea (10 minutu gehienez)	Epaimahaiak deialdian proposatutako en artean izangaiak bat aukeratu	10 minutu gehienez	25 puntu	

OHAR GARRANTZITSUAK:

1. Izangaiak aukeratuko du zer ordenaren arabera egin B eta C ariketak.



III. ERANSKINA.  
ARTE DRAMATIKOKO GOI-MAILAKO IKASKETAK EGITEKO SARBIDE-PROBA GAINDITU IZANAREN  
ZIURTAGIRIA

..... jaunak/andreak, arte dramatikoko goi-mailako ikasketak egiteko sarbide-  
proba espezifikoko ebaluazio-epaimahaiko idazkaria den aldetik, hauxe

ZIURTATZEN DU:

..... jaunak/andreak, ..... NAN/AIZ zenbakia  
duenak, arte dramatikoko goi-mailako arte-ikasketak egiteko sarbide-proba espezifikoa egin du, interpretazioaren  
espezializazioan, eta proba hori gainditu du.

Horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin dut, eta Bilbon izenpetu, bi mila .....-(e)ko (urtea, letraz idatzia)  
..... -aren (hilabetea, letraz idatzia) .....-(e)an (eguna, letraz idatzia).

(Ikastetxearen zigilua)

Izptua: epaimahaiko idazkaria